



1.- TESTUINGURU EKONOMIKOA

1.1.- NAZIOARTEKO EKONOMIA

Munduko ekonomian, herrialde garatuen datu ekonomiko onek protagonismoa hartu dute, herrialde emergenteen hazkundeak indarra galdu duten bitartean. Ematen duenez, hedapen monetarioko politika ultrasaiak daude ekonomia garatuen suspertze hasiera horren atzean. Politika horien xede nagusia enplegua hobetzea eta hazkunde ekonomikoa bultzatzea dira. Munduko ekonomiaren BPG erreala 2013an %2,9 inguru hedatuko dela estimatzen da, eta hazkunde hori %3,6ra igoko dela 2014an.

Estatu Batuetako ekonomiak erritmo onean jarraitzen du suspertzen, lan merkatuko hobekuntzak atzeratuta badatoz ere. Horrela, AEBko BPG %1,3 hazi da 2013ko lehenengo hiruhilekoan eta %1,6 bigarrean, eta urteko hazkundea %1,6koa izango dela aurreikusten da. Langabeziaren azkeneko datuek %7,3 inguruko tasa erakusten zuten, beherazko joerarekin, baina FEDek markatutako helburutik urruti oraindik (%6,5). Bestalde, merkatu inmobiliarioa ere suspertzen ari da, hipoteka tasak igo diren arren.

Japoniako ekonomia positiboki ari da erantzuten, itxura denez, Abenomics esaten zaien politikari esker, besteak beste, yenaren balio galerari eta inbertsio publikoa gehitu izanari esker. Horrela, bada, BPG neurriari da hazten da eta %2,0ko urte arteko hazkundea espero da 2013rako. Bestalde, langabezia tasa dezente hobetu da: 2013ko urtarilean %4,3koa izatetik abuztuan %3,8koa izatera pasatu da. Hala ere, badago kezka barne kontsumoa eroriko ote den, kontsumoa kargatzen duten zergen igoerak eraginda.

Txinan gora egin du jarduerak, industriak tonua berreskuratu du eta kanpo sektorea ere gorantz doa. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren prezio garestiak eta sektore publikoaren eta pribatuaren zorpetzeak,

1.- CONTEXTO ECONÓMICO

1.1.- ECONOMÍA INTERNACIONAL

En la economía mundial, los buenos datos de las economías desarrolladas adquieren protagonismo, mientras que el crecimiento de los países emergentes pierde tracción. Las políticas de expansión monetaria ultralaxas parecen estar detrás de la incipiente recuperación de las economías desarrolladas. Estas políticas tienen como objetivo principal la mejora del empleo y el crecimiento económico. El PIB real de la economía mundial se estima que se expandirá un 2,9% en 2013, crecimiento que se prevé aumentar para 2014 al 3,6%.

La economía de Estados Unidos sigue recuperándose a buen ritmo, si bien las mejoras en el mercado de trabajo están tardando más en llegar. Así, su PIB ha crecido el 1,3% y 1,6% en el primer y segundo trimestre de 2013, y se prevé que el crecimiento anual sea del 1,6%. Los últimos datos del paro arrojan tasas entorno al 7,3%, con tendencia a la baja, si bien se encuentran aún lejos del objetivo de la Fed (6,5%). Por otro lado, el mercado inmobiliario se está recuperando, a pesar de que los tipos hipotecarios se han elevado.

La economía japonesa, parece reaccionar positivamente gracias a las llamadas políticas Abenomics, entre las que se encuentra la depreciación del yen y el aumento de la inversión pública. Así, el PIB ha crecido moderadamente y se prevé una tasa de crecimiento del 2,0% interanual para 2013. Por otro lado, la tasa de paro ha mejorado considerablemente, pasando de un 4,3% en enero a un 3,8% en agosto de 2013. No obstante, se teme por una futura caída del consumo interno, debido al aumento de los impuestos que gravan el consumo.

En China repunta la actividad, con una industria que recupera el tono y un sector exterior al alza. A pesar de ello, el elevado precio de la vivienda y el endeudamiento del sector público y privado, que ha fomentado el



azkeneko herrialdean banku sistema paralelo bar sortzera eraman duenak, arrisku handia eranstean diote Txinako ekonomiaren egonkortasunari.

Mexikoren hazkundea frenatuta dago, sektore industrialaren geldialdiak eta gastu publikoaren euspenak eraginda nagusiki. Hala ere, 2013aren bigarren zatian ekonomiak bizitasun apur bat berreskuratuko duela espero da, 2012an hasitako erreforma estrukturalako planak emandako bultzadari esker.

Euroguneko ekonomian, BPG %0,3 hazi da 2013ko bigarren hiruhilekoan, urte eta erdian atzera egin ondoren, Alemania eta Frantziako hazkundeak bultzatuta batez ere (%0,7 eta %0,5 hurrenez hurren), baina baita herrialde periferikoen eraginez ere. Hala ere, NMFk BPGren hazkunde indize negatiboa, -%0,4koa, aurreikusi du 2013rako. Era berean, euroguneko PMI indize konposatua (Erosketa Kudeatzaileen indizea) %50eko barrera gainditzera iritsi da eta horrek esan nahi du BPG tasak positibo izateko joera erakusten duela.

Kontsumoa ere pizten ari da, jardueraren freno nagusienetakoa izan ondoren. Horrela, bai kontsumitzaileen konfiantza indizea eta bi txikizkako salmentak hobera egiten ari dira 2013an orain arte igarotako hilabeteetan.

Bestalde, inflazioa behean dabil, %1,3 inguruan, kontsumoa hobetzeak inflazioaren igoera ekar lezakeela eta urte amaierarako %1,5 irits daitekeela ematen duen arren, EBZk markatutako inflazio helburutik urruti hala ere.

Azkenik, euroguneko langabezia tasa, 2008tik orain arte etengabe igoz joan dena, % 12,1 inguruan egonkortu du azkeneko hilabeteetan.

Azken batean, egoera hobetu bada ere, okerragotzeko arriskuak hor daude oraindik.

sistema bancario paralelo en el país, siguen suponiendo un alto riesgo para la estabilidad de la economía china.

México ve frenado su crecimiento, principalmente por el estancamiento del sector industrial y la contención del gasto público. Pero se espera que en la segunda mitad del 2013 se recupere en parte el vigor de su economía, impulsado por el plan de reformas estructurales iniciado en 2012.

En la **economía de la zona euro**, se da un aumento del PIB del 0,3% en el segundo trimestre de 2013, tras año y medio de recesión, impulsado principalmente por el crecimiento de Alemania y Francia (0,7% y 0,5%, respectivamente), pero también por el de los países periféricos. A pesar de ello, el FMI prevé un índice de crecimiento negativo del PIB, del -0,4%, para el 2013. De igual modo, el índice PMI compuesto de la eurozona (Índice de Gestores de Compras) ha superado la barrera del 50%, lo cual indica que la tasa del PIB tiende a ser positiva.

También el consumo se está reavivando, tras haber sido uno de los principales frenos de la actividad. Así, tanto el índice de confianza del consumidor, como las ventas minoristas han constatado mejoras en lo que va de 2013.

Por otro lado, la inflación se mantiene en niveles bajos, cerca del 1,3%, aunque parece que la mejora del consumo puede provocar una subida, hasta alcanzar el 1,5% a fin de año, aún lejos del objetivo de inflación del BCE.

Por último, la tasa de paro de la eurozona, que había aumentado de forma continuada desde 2008, se ha estabilizado entorno al 12,1% en los últimos meses.

En definitiva, si bien la situación ha mejorado, los riesgos de empeoramiento aún no han desaparecido.



1.2- ESPAINIAKO ESTATUKO EKO- NOMIA

Estatuko ekonomiak uzkuertzeko erritmoa moteldu du eta suspertze hasieraren seinaleak berresten ari dira pixkanaka. Zehazki, Espainiako Estatistika Institutuak (INEK) aurreratu duen datu baten arabera, **BPGk** %0,1eko atzerakada egin zuen bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren konparatuta; aldiz, aurreko hiruhileko atzerakada $-\%0,4$ koa izan zen. BPGren jaitsiera hori barne eskariaren ahultasunak eragin du batez ere, bigarren hiruhilekoan ehuneko $-3,6$ puntuko ekarpena egin baitu. Aitzitik, kanpo eskari garbiak ehuneko $2,0$ puntuko ekarpen positiboa egin dio BPGri. Bigarren hiruhilekoan, estatuko esportazioen hazkundera handiagoa izan da Europako ekonomia nagusia baina (Alemania, Frantzia, Italia eta Erresuma Batua). Hain zuzen ere, herrialde horiek dira Espainiako esportazioen destino nagusia eta haien ekonomiak ere hobekuntza orokorrari ekin dio.

Lan merkatua, bestalde, egonkortze seinaleak erakusten hasi da 2013ko bigarren hiruhilekoan, eta langabezia tasa lehen aldiz jaitsi da 2011tik. Hala ere, NMFren aurreikuspenak pesimistak dira zinez: iragarri dutenez, 2016ra arte ez da enplegurik sortuko eta langabezia tasak %25aren gainetik jarraituko du 2018ra arte.

Bestalde, Estatuaren **aurrekontu defizitaren** helburua lortzeko problemak ez dira konpondu eta hor jarraitzen dute oraindik. Hala ere, Europako erakundeek luzatu egin dute 2016ra arte %3tik beherako defizita lortzeko helburua betetzeko epea, Gobernuak martxan jarritako erreforma estrukturalak ordurako fruitua emango dutelakoan.

Familien **kontsumoari** dagokionez, ez zen batere gehitu 2013ko 2. HHan, aurreko hiruhilekoan $-0,5$ eko tasa emanda gero. Kontsumitzaileen konfiantza indizea $-22,0$ punturaino hobetu zen abuztuan (ekainean $-28,7$ puntukoa izan zen). Txikizkako

1.2- ECONOMÍA DEL ESTADO ESPAÑOL

La economía estatal reduce su ritmo de contracción y los signos de una incipiente recuperación se van confirmando. Concretamente, según el dato adelantado del Instituto Nacional de Estadística, el **PIB** retrocedió un $0,1\%$ intertrimestral en el segundo trimestre, contrastando con el $-0,4\%$ del trimestre anterior. Esta caída del PIB se debe fundamentalmente a la debilidad de la demanda interna, con una contribución de $-3,6$ puntos porcentuales en el segundo trimestre. En cambio, la demanda exterior neta supone una aportación positiva al PIB de $2,0$ puntos porcentuales. El crecimiento de las exportaciones estatales en el segundo trimestre fue superior al de las principales economías europeas (Alemania, Francia, Italia y Reino Unido), las cuales son su principal destino comercial y han iniciado una mejoría generalizada de sus economías.

El **mercado laboral**, a su vez, también mostró sus primeros signos de estabilización en el segundo trimestre de 2013, registrando la primera reducción de la tasa de paro desde 2011. A pesar de ello, las previsiones del FMI son francamente pesimistas, pues según las mismas no se creará empleo hasta el 2016 y la tasa de paro seguirá por encima del 25% hasta 2018.

Por otra parte, los problemas para el cumplimiento del objetivo de **déficit presupuestario** del Estado persisten. A pesar de ello, las instituciones europeas han prorrogado la consecución del objetivo de déficit inferior al 3% hasta 2016, a la expectativa de que las reformas estructurales puestas en marcha por el Gobierno den su fruto para dicho plazo.

En cuanto al **consumo** de los hogares, este registró un incremento nulo en el 2T de 2013, tras anotar una tasa del $-0,5$ en el trimestre precedente. El índice de confianza de los consumidores mejoró hasta los $-22,0$ puntos en agosto ($-28,7$ puntos en junio). Las



salmentak ere hasiak dira jaitsiera frenatzen eta uztailean %3,5eko jaitsiera izan zuten aurreko urtearekin konparatuta.

Kapital finkoan egindako **inbertsioari** dagokionez, erorketaren erritmoa frenatzen ari dela ikusten da, ekipamenduko ondasunak portaera hobea izaten ari direlako, eraikuntzako inbertsioak gainbehera bizian jarraitzen duen bitartean (-%10,5 1.HHan eta -%10,2 2.HHan)

Estatuko ekonomiaren **inflazioa**, KPIren urte arteko bariazio tasaren bidez neurtua, 2011n hasitako moderazioaren ildo beretik ibili da 2013aren lehen erdian ere (%1,5 2013ko abuztuan). Beheranzko bide horri jarraituko dio dirudienez datozen hilabeteetan ere, 2012ko iraileko BEZ igoeraren eragina deskontatuta. Elikagaiak eta zerbitzuak izan dira prezio igoera handiena izan duten multzoak. Prezioen moderazio hori zor zaio, zalantzarik gabe, barne kontsumoaren ahultasunari, laneko kostuen murrizketari eta energia produktuen prezioen hazkunde txikiagoari, 2012ko BEZaren igoeraren eragina ezabatu izana ahaztu gabe.

1.3- EUSKAL HERRIKO EKONOMIA

1.3.1 Euskal Autonomia Erkidegoa

EAEko ekonomian hazkunde negatiboa izan du BPGk, bai 2013ko lehenengo hiruhilekoan eta bai bigarrenean, azken horretan beherakada txikixeagoa izan bada ere (-%1,9 eta -%1,5eko urte arteko tasa, hurrenez hurren). Atzeraka horren arrazoi nagusia eraikuntzak eta kapital finkoaren eraketa gordinak izandako jaitsiera bortitza da, kanpo sektoreak beherakada leundu duen arren, bigarren hiruhilekoan izandako hazkunde tasa positiboekin.

Ingurunean sumatzen den dinamismo handiagoak (Europako ekonomietan bereziki) mesede egin dio euskal manufaktura industriari, IPIaren eboluzioak erakusten duen eran, oraindik balio negatiboak izan arren, beherakada motelduz baitoa poliki-poliki.

ventas minoristas también van frenando su caída y en julio registraron una caída del 3,5% interanual.

Respecto a la **inversión** en capital fijo, se observa una disminución en su ritmo de caída, consecuencia del mejor comportamiento del componente bienes de equipo, mientras que la inversión en construcción sigue registrando caídas intensas (-10,5% en el 1T y -10,2% en el 2T).

La **inflación** de la economía estatal, estimada por medio de la tasa de variación interanual del IPC, ha continuado en la primera mitad de 2013 en la fase de moderación que comenzó en mayo de 2011 (1,5% en agosto de 2013). Ese perfil descendente continuará previsiblemente en los siguientes meses, al descontar los efectos del incremento del IVA de septiembre de 2012. Los alimentos y los servicios han sido los grupos con mayor subida de precios. La moderación de precios se debe, sin duda, a la debilidad del consumo interior, la reducción de costes laborales y el menor crecimiento de los precios de los productos energéticos, además de la eliminación del efecto subida del IVA de 2012.

1.3- ECONOMÍA DE EUSKAL HERRIA

1.3.1 Comunidad Autónoma de Euskadi

La economía de la CAE registró tasas negativas de crecimiento del PIB, tanto en el primer como en el segundo trimestre de 2013, si bien la caída se suavizó en este último (-1,9% y -1,5% interanual, respectivamente). Las causas principales de este retroceso se hallan en la fuerte bajada de la construcción y de la formación bruta de capital fijo, mientras que el sector exterior suaviza esta caída, al mostrar tasas de crecimiento positivas en el segundo trimestre.

El mayor dinamismo del entorno (economías europeas, sobre todo) ha favorecido a la industria manufacturera vasca, como demuestra la evolución del IPI, que, aunque sigue registrando valores negativos, va recortando sus descensos paulatinamente.



Bestalde, BPGren erorketak eragin nabaria du lan merkatuan. Horrela, Gizarte Segurantzako afiliazioak behera egiten segitzen du, erritmo makalagoan bada ere. Hala ere, urteko bigarren hiruhilekoan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasa %62,8an kokatu da, lehenengo hiruhilekoan baino ehuneko puntu bat gorago. Edozein modutan, tasa hori urrun dago oraindik 2008an lortutako %67,6ko okupazio tasatik.

Prezioak, bestalde, nabarmen moderatu dira bigarren hiruhilekoan, barne eskari ahulak behartuta neurri handi batean. Alde horretatik, elikagaiak (elaboratuak nahiz elaboratu gabeak) izan dira prezio igoera handiena izan dutenak, energiak bere inflazioa gutxitu duen bitartean bigarren hiruhilekoan eta hirugarrenaren zati batean, petrolioaren prezioaren egonkortzeari eta euroaren balio irabazteari esker. Abuztuko KPI %1,9an kokatu da, 4 hamarren Espainiakoaren gainetik, botiken koordainketa indarrean jarri izanaren ondorioz zati batean.

Testuinguru honetan, aurreikuspenen arabera, EAEko ekonomia 2014an irtengo da atzeralditik (-%1,1eko hazkundera BPGk 2013an eta %0,9koa 2014an). Era berean, enpleguaren beherakadak ere frenatzeko joera erakusten du, 2014an langabezia tasa %14,2raino jaisteko aurreikuspenarekin. Kontsumo pribatua ere berpizteko estimazioa dago 2014rako, kontsumo publikoak jarraituko ez dion arte, jaisten jarraituko baitu.

1.3.2 Nafarroako Autonomia Erkidegoa

Nafarroako ekonomiak hazkunde negatiboa izan du 2013ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko -%1,6ko tasa errealekin, eta hiruhileko arteko -%0,4ko bariazioarekin. 2013ko bigarren hiruhileko honetako datu garrantzitsuenak analizatuta, azpimarratzekoa da:

Eskaintzari dagokionez, aipatzekoa da adar industrialetan frenatu egin dela aurreko hiruhilekoetako uzkurdua nabarmena, -%3,6ko bariazio tasarekin, agregatuari

Por otro lado, las caídas del PIB tienen un claro efecto en el mercado de trabajo. Así, la afiliación a la Seguridad Social sigue cayendo, si bien reduce su ritmo de deterioro. A pesar de ello, en el segundo trimestre del año la tasa de ocupación de la población entre 16 y 64 años se ha situado en el 62,8%, un punto porcentual más que en el primer trimestre. No obstante, dicha tasa dista mucho del máximo registrado en 2008, cuando alcanzó un 67,6%.

Los precios, por su parte, se moderaron significativamente en el segundo trimestre, retenidos principalmente por la débil demanda interna. En este sentido, los alimentos (tanto elaborados, como no elaborados) son los que mayor aumento de precios han sufrido, mientras que la energía ha minorado su inflación en el segundo trimestre y parte del tercero, debido a la estabilización del precio del petróleo y a la apreciación del euro. El IPC de agosto se sitúa en el 1,9%, 4 décimas superior al Estado, debido en parte a la introducción del copago farmacéutico.

En este contexto, las previsiones para la economía de la CAE prevén una salida de la recesión para 2014 (-1,1% PIB en 2013 y 0,9% en 2014). Asimismo, el empleo tiende a frenar su caída, reduciéndose ligeramente la tasa de paro hasta el 14,2% en 2014. También se estima un reavivamiento del consumo privado para 2014, si bien no irá acompañado del consumo público, que seguirá cayendo.

1.3.2 Comunidad Autónoma de Navarra

La economía de Navarra decreció en el segundo trimestre de 2013 a una tasa real interanual del -1,6%, mientras que la variación intertrimestral fue del -0,4%. Analizando los datos económicos más relevantes de este segundo trimestre de 2013, podemos resaltar:

En cuanto a la oferta, cabe destacar que las ramas industriales frenaron la acusada contracción de trimestres anteriores, con una tasa de variación del -3,6%, cifrándose su



ehuneko -0,9 puntuko ekarpena eginda.

Barne eskariak, bestalde, arindu egin du uzkurdua kontsumo pribatuari dagokionez (1.HHko -%2,3tik, -%2,1ra pasatu da 2.HHan). Kapital finkoaren eraketa gordinak ere moteldu egin du beherakada (-%3,6tik -%3,1ra). Ez da gauza bera gertatu, ordea, kontsumo publikoarekin, malda behera segitzen baitu (-%6,4 jaitzi da 2.HHan; -%5,9 1.HHan). Bitartean, kanpo eskariak, ekonomiaren hazkunde totalerako ekarpena moderatu duen arren, ehuneko 1,0 puntuko hazkundera sorrarazten jarraitzen du, inportazioen uzkurdua handiagoari esker (-%3,3), esportazioen tasa negatiboa gaindituz (-%1,7).

Enplegua, lanpostutan neurtua, %4,1ean jaitzi da 1.HHan eta %3,9an 2.HHan. Eraikuntza sektorea da oraindik ere lanpostu gehien suntsitzen dituen, hiruhileko bakoitzean %16tik gorako galerarekin azkeneko lau hiruhilekoetan.

Prezioei dagokionez, urte arteko KPI %1,5ean zegoen abuztuan, ekainean baino beherago, orduan %2,1era iritsita baitzegoen.

Nafarroako Gobernuak 2013rako egindako aurreikuspenen arabera, jarduera jaistea espero da eta BPGren hazkundera -%1,4koa izatea, 2014an atzeralditik irten eta hazkunde positiboa erdietsiko dela uste badute ere (%0,6).

aportación negativa al agregado en -0,9 puntos porcentuales.

La demanda interna, por su parte, modera su contención en lo que a consumo privado se refiere (pasa de un -2,3% en el 1T a un -2,1% en el 2T). También moderó su caída la formación bruta del capital fijo (de un -3,6% a un -3,1%). No así el consumo público, que ha acentuado aún más la senda descendente (desciende un -6,4% en el 2T; un -5,9% en el 1T). Mientras, la demanda externa, pese a moderar la contribución al crecimiento total de la economía, continúa generando un crecimiento de 1,0 puntos porcentuales, debido a una contracción más intensa de las importaciones (-3,3%) y a pesar de la tasa negativa de las exportaciones (-1,7).

El empleo, medido en puestos de trabajo, experimenta una caída del 4,1% en el 1T y del 3,9% en el 2T. El sector de la construcción sigue siendo el que mayor número de puestos destruye, con una pérdida trimestral superior al 16% en los últimos cuatro trimestres.

En cuanto a los precios, el IPC interanual de agosto se sitúa en el 1,5%, registrando caídas desde el mes de junio, que llegó a alcanzar el 2,1%.

Las previsiones realizadas por el Gobierno de Navarra para 2013 presentan un empeoramiento de la actividad, y sitúan el incremento del PIB en el -1,4%, si bien se espera abandonar la recesión en 2014, pasando a crecimientos positivos (0,6%).